

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

5005

EBAZPENA, 2020ko urriaren 5ekoa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, zeinaren bitartez argitara ematen baita Donostiako «Musikene» Goi Mailako Musika Ikastegi Baimenduaren Musika Garaikidea Sortzeko Irakaskuntza Artistikoen Masterraren titulua lortzeko ikasketa-plana.

Urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak 7.1 artikuluan ezartzen duenez, goi-mailako arte-irakaskuntzetako zentroek Arte Irakaskuntzen Goi Mailako Titulua eta Masterra lortzeko ikasketak eskaini ahal izango dituzte (1614/2009 Errege Dekretuaren bidez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (LOE) eta Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) arautzen dituzten goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezarri zen; gerora, errege-dekretu hori urtarrilaren 23ko 21/2015 Errege Dekretuak aldatu zuen).

Era berean, errege-dekretu horren 13.1 artikuluan, goi-mailako arte-irakaskuntzetako masterrako tituluen ikasketa-planak homologatzeko jarraitu beharreko prozedura ezartzen da.

Izapide guztiak bete ondoren, Donostiako «Musikene» Goi Mailako Musika Ikastegi Pribatu Baimenduaren Musika Garaikidea Sortzeko Irakaskuntza Artistikoen Masterraren titulua lortzeko ikasketa-plana Unibertsitatez Kanpoko Ikastetxeen Estatuko Erregistroan inskribatu da 20012638 kodearekin, eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ministroaren ekainaren 5eko EFP/663/2019 Aginduaren bidez homologatu da (abenduaren 27ko EFP/1422/2018 Aginduaren babesean, eskuordetza bidez, María de la Consolación Vélaz de Medrano Ureta Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emana; 2019ko ekainaren 19ko BOE, 146. zk.).

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuak 15. artikuluan zehazten du araubide bereziko irakaskuntzen ezarpenaren eta garapenaren programazioa eta diseinua Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren eginkizun eta eskumenetako bat dela, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiaren irakaskuntzak barne.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Donostiako «Musikene» Goi Mailako Musika Ikastegi Baimenduan ematen den Musika Garaikidea Sortzeko Irakaskuntza Artistikoen Masterraren ikasketa-plana, ebazpen honen eranskinean agertzen den moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 5a.

Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria,
EUGENIO JIMÉNEZ IBÁÑEZ.

2020ko azaroaren 20a, ostirala

ERANSKINA

MUSIKENE EUSKAL HERRIKO GOI-MAILAKO MUSIKA-IKASTEGIAREN MUSIKA
GARAIDEA SORTZEKO IRAKASKUNTZA ARTISTIKOEN MASTER-TITULUA
LORTZEKO IKASKETA-PLANA

TITULUARI DAGOKION JAKINTZA-ADARRA: ARTEAK ETA GIZA ZIENTZIAK

Masterraren egitura:

| Moduluak | ECTS kredituak | Jakintzagaiak |
|--|----------------|---------------|
| I. Espezialitateko nahitaezkoak | 62 | 6 |
| II. Prestakuntza teoriko-praktikoko nahitaezkoak | 24 | 5 |
| III. Hautazkoak | 12 | 2 |
| IV. Kanpoko praktikak | 5 | 1 |
| V. Master amaierako lana | 17 | 2 |
| GUZTIRA | 120 | 16 |

Ikasketa-plana:

| Moduluak eta irakasgaiak | Iraupena/lzaera | ECTS |
|---|---|------|
| Espezialitateko nahitaezko modulua | | 62 |
| Konposizioa I | Urtekoa / Lehenengo maila / Nahitaezkoa | 14 |
| Konposizioa II | Urtekoa / Bigarren maila / Nahitaezkoa | 14 |
| Ensemblea I | Bigarren lauhilekoa / Nahitaezkoa | 6 |
| Ensemblea II | Hirugarren lauhilekoa / Nahitaezkoa | 6 |
| Ensemblea III | Laugarren lauhilekoa / Nahitaezkoa | 6 |
| Konposizioa, baliabide elektroakustikoak eta ikus-entzunezko baliabideak erabilia | Urtekoa / Lehenengo maila / Nahitaezkoa | 16 |
| Nahitaezko modulu teoriko-praktikoa | | 24 |
| Lanbide-garapena | Urtekoa / Lehenengo maila / Nahitaezkoa | 5 |
| Sorkuntzaren eta interpretazioaren arteko elkarrizketa | Bigarren lauhilekoa / Nahitaezkoa | 5 |
| Diziplinarteko sorkuntza-proiektuak | Hirugarren lauhilekoa / Nahitaezkoa | 6 |
| Grabazio- eta postproduzio-teknikak | Laugarren lauhilekoa / Nahitaezkoa | 5 |
| Teknika instrumental hedatuak | Lehen lauhilekoa / Nahitaezkoa | 3 |
| Hautazko modulua (maila bakoitzeko bat) | | 12 |
| Artea eta gizartea | Lehen edo hirugarren lauhilekoa / Hautazkoa | 6 |
| Kulturen arteko elkarrizketa eta entzule berriak | Lehen edo hirugarren lauhilekoa / Hautazkoa | 6 |
| XX. eta XXI. mendeetako pentsamendu sortzailea eta estetikoa | Lehen edo hirugarren lauhilekoa / Hautazkoa | 6 |
| Kanpoko praktiken modulua | | 5 |
| Kanpoko proiektua | Hirugarren lauhilekoa / Nahitaezkoa | 5 |
| Master amaierako lanaren modulua | | 17 |
| Ikerketaren metodologia | Lehen lauhilekoa / Nahitaezkoa | 5 |
| Master amaierako lana | Laugarren lauhilekoa / Nahitaezkoa | 12 |
| Masterreko kredituak, GUZTIRA | | 120 |